

Esptea.: 2024PLEN0005

Erref.: GU / AEL

**HONDARRIBIKO UDAL TXIT GARAIK
2024KO APIRILAREN 25EAN EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA.**

Hondarribiko Hirian, bi mila eta hogeita lauko apirilaren hogeita bostean Udaletxe honetako Batzar Aretoan Udalbatza bildu da Igor Enparan Araneta jaun **alkate-udalburuaren** lehendakaritzapean eta ondoren aipatzen diren **udalkideak** partaide direla:

Alkateordeak:

Estitxu Urtizberea Sorzabal and.
Garoa Lekuona Izeta and.
Guadalupe Queiruga Oronoz and.
Josu Peña Alza jna.
Ortzi Alonso Murelaga jna.

eta zinegotziak:

Aitzol Arroyo Tumas jna.
Gonzalo Carrión Insausti jna.
María Serrano Olascoaga and
Juan Luis Silanes Aguirre jna.
Ainhoa Martinez Arrieta and.
Ander Ribes Lazcanotegui jna.
Alaitz Zabala Zarauz and.
Maria Noemi Odriozola Pascual and.
Jesús Ignacio Alvarez Yeregui jna.
Koldobika Rodriguez Akarregi jna.

Ezin etorria adierazi du: Tamara Yaoska Sastre Castillo andreak.

Erabakiak hartzeko nahikoak izanik, bilkura publikoa burutu dute arratsaldeko seiak eta batean, Gorka Urgoiti Agirre Udal idazkari jauna lagun nautelarik.

Interbentzioak:

ALKATE JAUNA: Mila esker etortzeagatik. Gaur, apirilaren 25ean, San Markos, opila eguna dugun honetan, Osoko Bilkura deituta dugu, Ohiko Bilkura, gaurkoa, eta aztergaien zerrendan baditugu

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA
CELEBRADA POR EL EXCMO.
AYUNTAMIENTO DE ESTA CIUDAD DE
HONDARRIBIA EL DIA 25 DE ABRIL DE
2024.**

En la Ciudad de Hondarribia a veinticinco de abril de dos mil veinticuatro se constituye el Ayuntamiento Pleno en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial, bajo la presidencia del Sr. **Alcalde-Presidente** D. Igor Enparan Araneta y con la asistencia de los/as **Tenientes de Alcalde Sres./as.:**

D^a Estitxu Urtizberea Sorzabal.
D^a Garoa Lekuona Izeta.
D^a Guadalupe Queiruga Oronoz.
D. Josu Peña Alza.
D. Ortzi Alonso Murelaga.

y de los Concejales y Las Concejalas Sres./as.:

D. Aitzol Arroyo Tumas.
D. Gonzalo Carrión Insausti.
D^a María Serrano Olascoaga
D. Juan Luis Silanes Aguirre.
D^a Ainhoa Martinez Arrieta.
D. Ander Ribes Lazcanotegui.
D^a Alaitz Zabala Zarauz.
D^a Maria Noemi Odriozola Pascual
D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui.
D. Koldobika Rodriguez Akarregi.

Ha justificado su ausencia: D^a Tamara Yaoska Sastre Castillo.

Quienes siendo número suficiente se constituyeron en sesión pública a las dieciocho horas y un minuto, asistidos/as de mí, el Secretario, D. Gorka Urgoiti Agirre.

Intervenciones:

EL SR ALCALDE: Gracias por asistir a la sesión. Hoy, 25 de abril, San Markos, día de la opila, tenemos convocado un Pleno Ordinario, cuyo orden del día consta de siete puntos, si no me

zazpi puntu, ez banago oker, zazpi puntu. Bai gustatuko litzaidake, lehenik eta behin, oroitzapen bat egitea, krabelinen iraultzaren berrogeita hamargarren urtemuga ospatzen da gaurkoan ere, opila eguna bakarrik ez, eta oroitzapen gisa edo horren inguruan aipamentxo bat egitea, eta beste alde batetik azken Udalbatzan gertatutakoen arabera uste dut interesgarria dela irakurketa bat egitea Udalbatzaren nondik norakoa edo hitz hartzeen nondik norakoa nola araututa dagoen aditzera ematea, eta horren inguruan arautegia irakurri nahi nuke, guztiok ezagutu dezagun hemendik aurrerakoan ere, audio sistema ere berria da, eta hitz hartzeekin bata besteari hitza kentzen ez aritzeko... uste dut beharrezkoa dela.

Eta honela, aipatuko dut arau hau Errege Dekretu batean oinarritzen dela, hain zuzen ere 25/68 Errege Dekretuan, 1986koa, eta 94. artikuluan lehenengo puntuari esaten da eztabaida sustatzen denean alkateak edo lehendakariak aginduko ditu esku-hartzeak, honako erregelak hauek betez:

a) Hitza erabili ahal izateko alkateak edo lehendakariak baimena eman beharko du alde aurretik.

b) Eztabaida hasteko proposamena azaldu eta justifikatu egingo da, proposamena egin duen Informazio batzordeko kideren batek, edo gainerako kasuetan proposamena edo mozioa sinatzen duen korporazioko kideren batek bere izenean, edo proposamena proposatu duen udal talde edo organoen izenean.

c) Ondoren taldeek lehen Txanda bat kontsumituko dute. Alkateak edo lehendakariak zainduko du hitzaldi guztiak iraupen bera izan dezaten.

d) Baten batek bere burua aipatuzat jotzen badu alkateari edo lehendakariari eskatu ahal izango dio txanda bat emateko aipamenean arabera, eta txanda hori laburra eta zehatza izango da.

e) Talderen batek eskatzen badu, bigarren txanda bat egingo da. Hori egindakoan, alkateak edo lehendakariak amaitutzat eman dezake eztabaida, eta txostengilearen hitzaldi batekin amaituko da. Hizlariak bere proposamena berretsi edo aldatuko

equivoco. En primer lugar, quisiera, para comenzar, recordar que hoy se celebra el 50 aniversario de la revolución de los claveles, además del día de la opila, y así realizar una pequeña mención de tal hecho. Por otro lado, al hilo de lo sucedido en el último Pleno, considero que sería interesante realizar una lectura sobre la regulación de las intervenciones en los Plenos, para que todos y todas conozcamos las normas que deben regirlos y las apliquemos de ahora en adelante; por ello quisiera leer la normativa reguladora –el sistema de audio que tenemos es también nuevo–, para que no nos interrumpamos mutuamente las intervenciones. Pienso que es necesario.

Y así, mencionaré que esta normativa está basada en el Real Decreto 25/68, de 1986, y que en el artículo 94 punto 1º se estipula que las intervenciones serán ordenadas por el Alcalde o Presidente conforme a las siguientes reglas:

a) Sólo podrá hacerse uso de la palabra previa autorización del Alcalde o Presidente.

b) El debate se iniciará con una exposición y justificación de la propuesta, a cargo de algún miembro de la Comisión Informativa que la hubiera dictaminado o, en los demás casos, de alguno de los miembros de la Corporación que suscriban la proposición o moción, en nombre propio o del colectivo u órgano municipal proponente de la misma.

c) A continuación, los diversos grupos consumirán un primer turno. El Alcalde o Presidente velará para que todas las intervenciones tengan una duración igual

d) Quien se considere aludido por una intervención podrá solicitar del Alcalde o Presidente que se conceda un turno por alusiones, que será breve y conciso

e) Si lo solicitara algún grupo, se procederá a un segundo turno. Consumido éste, el Alcalde o Presidente puede dar por terminada la discusión que se cerrará con una intervención del ponente en la que brevemente ratificará o modificará su

du labur-labur.

f)

f.1) Lehendakariaren etenaldiak baino ez dira onartuko eztabaidatutako ordenara edo gaira deitzeko.

f.2) korporaziokideek eztabaidaren edozein unetan hitza eskatu ahal izango dute ordena arazo bat planteatzeko, aplikatu beharreko araua aipatuz. Lehendakariak bidezkoa dena ebatziko du, eta horregatik ez da eztabaidarik sortuko.

f.3) Idazkaritzaren edo kontu-hartzailearen ardura duten funtzionarioek esku-hartu ahal izango dute baldin eta lehendakariak hala eskatzen badie aholkularitza teknikoa emateko edo kontzeptuak argitzeko. Funtzionario horiek uste badute eztabaidan eztabaidatutako puntuaren legezotasunari edo aurrekontu ondorioei buruz zalantzan jar daitekeen gairen bat planteatu dela, lehendakariari eskatu ahal izango diote hitza erabil dezala Korporazioari aholkuak emateko.

Eta bigarrena eta hau laburragoa, 95. artikuluan, aipatzen da lehenengo puntuan

1. Alkateak edo Lehendakariak Korporazioko edozein kide deitu ahal izango du ordenara, baldin eta:

a) Korporazioaren edo Korporaziokideen, erakunde publikoen, edo beste edozein pertsona edo erakunderen duintasunari iraingarriak zaizkion hitzak edo kontzeptuak erabiltzen baditu.

b) Etenaldiak egitea, edo beste edozein moduan bilkuren ordena aldatzen badu.

c) Hitza eman gabe edo kendu ondoren erabili nahi badu.

Eta bigarren puntuan esaten du bilkura berean hiru dei egin ondoren, eta hirugarren dei baten ondorioz ohartarazita lehendakariak bilera egiten ari den lokaletik alde egiteko agindu ahal izango dio, kanporatzea gauzatzeko egokitzat jotzen dituen neurriak hartuta.

propuesta.

f)

f.1) No se admitirán otras interrupciones que las del Presidente para llamar al orden o a la cuestión debatida.

f.2) Los miembros de la Corporación podrán en cualquier momento del debate pedir la palabra para plantear una cuestión de orden, invocando al efecto la norma cuya aplicación reclama. El Presidente resolverá lo que proceda, sin que por este motivo se entable debate alguno.

f.3) Los funcionarios responsables de la Secretaría y de la Intervención podrán intervenir cuando fueren requeridos por el Presidente por razones de asesoramiento técnico o aclaración de conceptos. Cuando dichos funcionarios entiendan que en el debate se ha planteado alguna cuestión sobre la que pueda dudarse sobre la legalidad o repercusiones presupuestarias del punto debatido podrán solicitar al Presidente el uso de la palabra para asesorar a la Corporación.

Y en segundo lugar, siendo éste más breve, en el artículo 95 se menciona en el primer punto

1. El Alcalde o Presidente podrá llamar al orden a cualquier miembro de la Corporación que:

a) Profiera palabras o vierta conceptos ofensivos al decoro de la Corporación o de sus miembros, de las Instituciones Públicas o de cualquier otra persona o entidad.

b) Produzca interrupciones o, de cualquier otra forma, altere el orden de las sesiones.

c) Pretenda hacer uso de la palabra sin que le haya sido concedida o una vez que le haya sido retirada.

Y en el segundo punto señala que, tras tres llamadas al orden en la misma sesión, con advertencia en la segunda de las consecuencias de una tercera llamada, el Presidente podrá ordenarle que abandone el local en que se esté celebrando la reunión, adoptando las medidas que considere oportunas para hacer efectiva la expulsión.

Hauek dira bi artikulua arautzen dutenak Udaltzuetan izan behar diren debateak, eta espero dut guztiok barne hartzea Udaltzua modu egokian jardun ahal izateko.

Bilkura hasi ondoren, ondoko zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dira:

IDAZKARITZA

1.-HONAKO BILKURETAKO AKTEN IRAKURKETA ETA ONARPENA, BIDEZKOA BADA:

- *2023KO AZAROAREN 23KOA
- *2023KO ABENDUAREN 20KOA
- *2024KO MARTXOAREN 21EKOA

Udaltzak 2023ko azaroaren 23 eta abenduaren 20ko, eta 2024ko martxoaren 21eko bilkuretako aktak irakurri ondoren.

Aktak bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Aldeko botoak: 16, Abotsanitz (6), EAJ-PNV (6), EH Bildu (2) eta PSE-EE-PSOE (2).

Horren ondorioz, **Udaltzak**, aho batez, hauxe **ERABAKI DU**: 2023ko azaroaren 23 eta abenduaren 20ko, eta 2024ko martxoaren 21eko bilkuretako aktak onartzea.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

ALKATE JAUNA: Eguneko Aztergaien lehenengo puntuarekin hasiko gara, eta Idazkaritzatik dator hiru bilkuretako akta onartzeko proposamena. Akta hauek dira 2023ko azaroaren 23koa, 2023ko abenduaren 20koa, eta 2024ko martxoaren 21eko aktak. Guztiok jaso ditugu, eta ez dakit aipamenik egin nahi den...

Onartutzat emango ditugu, beraz, hiru akta hauek, eta pasako gara bigarren puntura.

Estos son los dos artículos que regulan los debates de los Plenos, y espero que todos/as los asimilemos para que el Pleno transcurra adecuadamente.

Abierta la sesión por la Presidencia, se procede a tratar los siguientes puntos del Orden del Día:

SECRETARÍA

1.-LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS ACTAS DE LAS SIGUIENTES SESIONES:

- *23 DE NOVIEMBRE DE 2023
- *20 DE DICIEMBRE DE 2023
- *21 DE MARZO DE 2024

Dada lectura de las actas de las sesiones plenarias celebradas los días 23 de noviembre y 20 de diciembre de 2023, y 21 de marzo de 2024.

Sometidas a votación las actas, el resultado de la misma es el siguiente:

Votos a favor: 16, Abotsanitz (6), EAJ-PNV (6), EH Bildu (2) y PSE-EE-PSOE (2).

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA**: aprobar las actas de las sesiones plenarias celebradas los días 23 de noviembre y 20 de diciembre de 2023, y 21 de marzo de 2024.

Intervenciones en relación al acuerdo:

EL SR ALCALDE: Comenzaremos con el primer punto del orden del día, que procede de Secretaría: la propuesta de aprobación de las actas de tres sesiones de Pleno. Las actas en cuestión son la del 23 de noviembre del 2023, la del 20 de diciembre del 2023, y la del 21 de marzo del 2024. Las hemos recibido todos/as, y no sé si alguien quiere hacer algún comentario...

Por lo tanto, daremos por aprobadas estas tres actas, y pasaremos al segundo punto.

ALKATETZA

2.-2024KO 1. HIRUHILEKOAREN HIRUHILEKO INFORMAZIOAREN BERRI EMATEA: ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA, MERKATARITZA OPERAZIOETAN DAGOEN BERANKORTASUNA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOA.

2024. ekitaldiko 1. hiruhilabetekoari dagozkion ordaintzeko batez besteko epeari, merkataritza operazioetan dagoen berankortasunari eta aurrekontuaren exekuzioaren hiruhileko informazioari buruzko espedienteaz aztertu ondoren.

2024ko apirilaren 19ko Udal diruzain andrearen txostenaren berri eman da, 2024. ekitaldiko 1. hiruhilabetekoari dagokion ordaintzeko batez besteko epeari eta merkataritza operazioetan dagoen berankortasunari buruzko hiruhileko informazioaz.

2024ko apirilaren 19ko Udal kontu-hartzaile andrearen txostenaren berri eman da, 2024. ekitaldiko 1. hiruhilabetekoari dagokion aurrekontuaren exekuzioari buruzko hiruhileko informazioaz.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

ALKATE JAUNA: Alkatetzatik 2024ko lehenengo hiruhilekoaren informazioaren berri ematea. Ordaintzeko bataz besteko epea, merkataritza operazioetan dagoen berankortasuna, eta aurrekontuaren exekuzioa.

Hemen jaso dituzue hainbat txosten diruzaintzakoak, eta txosten hauetatik ondorioztatu dezakegu edo berri eman dezakegu 2024ko lehenengo hiru hilabeteetan 3 milioi eurotik gorako ordainketak egin direla Udalaren aldetik, bataz besteko ordainketa epea 12,68 egunekoa dela, kontuan hartuta bai Hondarribiko Udalarenak, bai Hondarribia Lantzenenak, eta Arma Plaza Fundazioarenak ere. Gogoratu behar dut 30 eguneko epea dela ordainketak egiteko araututa dagoen epe gehienekoa, eta kasu honetan

ALCALDÍA

2.-DAR CUENTA DE LA INFORMACIÓN TRIMESTRAL RELATIVA AL 1ER TRIMESTRE DE 2024: PERIODO MEDIO DE PAGO, MOROSIDAD EN LAS OPERACIONES COMERCIALES Y EJECUCIÓN DEL PRESUPUESTO.

Examinado el expediente relativo a la información trimestral relativa al periodo medio de pago, morosidad en las operaciones comerciales y ejecución del presupuesto relativos al 1er trimestre del ejercicio 2024.

Se da cuenta del informe de 19 de abril de 2024 de la Sra. Tesorera Municipal en relación a la información trimestral relativa al periodo medio de pago y a la morosidad en las operaciones comerciales del 1er trimestre del ejercicio 2024.

Se da cuenta del informe de 19 de abril de 2024 de la Sra. Interventora Municipal en relación a la información trimestral relativa a la ejecución del presupuesto relativa al 1er trimestre del ejercicio 2024.

El Ayuntamiento Pleno queda enterado.

Intervenciones en relación al acuerdo:

EL SR ALCALDE: Dar cuenta por parte de Alcaldía de la información sobre el primer trimestre del 2024. Plazo medio de pago, morosidad en las operaciones comerciales y ejecución del presupuesto.

Sobre este punto tenéis en vuestras manos diversos informes de Tesorería, de los cuales podemos concluir o informar que en los tres primeros meses del 2024 se han realizado pagos de más de tres millones de euros por parte del Ayuntamiento, y que el plazo medio de pago ha sido de 12,68 días, tomando en cuenta los del Ayuntamiento de Hondarribia, los de Hondarribia Lantzen y los de Arma Plaza Fundazioa. Debo recordar que el plazo máximo estipulado para la realización de los pagos es de 30 días, y que en el caso de Hondarribia

Hondarribia Lantzen aldetik 40 eguneko epean egin direla bataz beste ordainketak. Beraz erronka bat daukagu, hori ere zuzendu ahal izateko.

Eta exekuzioari dagokionean, lehenengo hiruhilekoan, aipatu nahiko nuke dirubilketa 4.400.000 eurokoa izan bada, ordainketak 3.400.000 eurotik pasatxokoak izan direla.

Hau da berri ematea, lehenengo hiruhileko kontuen inguruan. Norbaitek galderarik?

Berri eman da, beraz. Eta pasako gara laugarren puntura, hirugarren puntura, barkatu.

KONTUEN BATZORDE BEREZIA

3.-UDAL ARGITALPENAK SALTZEKO PREZIO PUBLIKOAK EZARTZEKO AKORDIOAREN ALDAKETA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Udal argitalpenak saltzeko prezio publikoak ezartzeko akordioaren aldaketa proposamenari dagokion espedientea aztertu ondoren.

2024ko apirilaren 18ko Kontuen Batzorde Bereziaren diktamena ikusi ondoren.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengo da:

Aldeko botoak: 16, Abotsanitz (6), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (2) eta EH Bildu (2).

Horren ondorioz, **Udalbatzak**, bertaratutakoen aho batez, hauxe **ERABAKI DU**:

LEHENENGO.- Udal argitalpenak saltzeko prezio publikoak ezartzeko akordioaren aldaketa proposamena onartzea eta ondorioz, akordioaren 3. artikulua aldatzea, argitalpenen artean hauek sartuz:

HONDARRIBIKO KALEAK. LM Eloseg, F Olaskoaga eta JR Gebara 30 euro (% 4 BEZ barne)

Lantzen el plazo medio de pago ha sido de 40 días. Por lo tanto, nos enfrentamos a un reto para mejorar dicho plazo.

Y en lo referente a la ejecución, quisiera mencionar que, si en el primer trimestre la recaudación ha sido de 4.400.000 euros, los pagos han sido de 3.400.000 euros y pico.

Se trata de informar de las cuentas del primer trimestre. ¿Tiene alguien alguna pregunta?

Bien, por lo tanto, se ha informado. Y pasamos al cuarto punto. No, al tercero, perdón.

COMISIÓN Y ESPECIAL DE CUENTAS

3.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DE MODIFICACIÓN DEL ACUERDO DE ESTABLECIMIENTO DE PRECIOS PÚBLICOS PARA VENTA DE PUBLICACIONES MUNICIPALES.

Examinado el expediente relativo a la propuesta de aprobación de modificación del acuerdo de establecimiento de precios públicos para venta de publicaciones municipales.

Visto el dictamen de la Comisión y Especial de Cuentas de 18 de abril de 2024.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Votos a favor: 16, Abotsanitz (6), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (2) y EH Bildu (2).

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA**:

PRIMERO.- Aprobar la propuesta de modificación del acuerdo de establecimiento de precios públicos para venta de publicaciones municipales, y en consecuencia, modificar el artículo 3 del acuerdo, incluyendo las siguientes publicaciones:

HONDARRIBIKO KALEAK. LM Eloseg, F Olaskoaga eta JR Gebara 30 euros (4% IVA incluido)

LAS CALLES DE HONDARRIBIA. LM Elozegi, F Olaskoaga eta JR Gebara 30euro (% 4ko BEZ barne).

PERTSONA IZATEAREN BALIOA. Lupe Calvo 20 euro (% 4ko BEZ barne).

BIGARREN.-Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ondorengo akordioa argitaratzea.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

ALKATE JAUNA: Hirugarren puntua, baita ere, Alkatetzako puntua da, eta bertan udal argitalpenak saltzeko prezio publikoak ezartzeko akordioaren aldaketa onartzeko proposamena da. Gogoratuko duzue otsailaren amaieran egindako Udalbatzan onartu genuela udal argitalpenak saltzeagatik prezio publikoak ezarri eta ordenatzeko akordioa, eta Hondarribiko Udalak bi argitalpen berri egin dituenek, akordio hori aldatu egin behar da, bere eranskinean, “3.1. eranskin”ean ...esan nahi dut...sartu nahi ditugu beste bi liburu hauen prezioak. Bi liburuak dira, hain zuzen, ere, “Hondarribiko kaleak”, batetik, bai euskarazko eta bai erdarazko bertsioan, eta beste alde batetik “Pertsona izatearen balioa”. Aurkeztu zaizkizue txostenak, non egiten den bai Diruzaintzako eta Kontu-hartzailetzako balorazioak, bertan jasotzen da zeintzuk izan diren liburuaren kostuak eta prezio publiko hauek ezartzearekin zeintzuk izango diren Udalak jasoko dituen defizitak, nola justifikatzen ditugun defizit hauek interes orokorreko liburuak direla argudiatuta, eta horren baitan erabaki da jartzea “Hondarribiko kaleak” liburua 30 eurotan salgai, bai euskaraz eta bai gazteleraz, eta “Pertsona izatearen balioa” 20 euroko prezioan jartzea proposatzen da. Beraz, norbaitek galderarik edo argipenik behar badu? Bada, prezio publikoak ezarri eta antolatzeko akordioa aldatzeko proposamena bere “3.1 Eranskin”ean aldeko bozkak? Aho batez onartua, eta espero dezagun lehenbailehen bi liburuak salmentan izatea.

LAS CALLES DE HONDARRIBIA. LM Elozegi, F Olaskoaga eta JR Gebara 30 euros (4% IVA incluido).

PERTSONA IZATEAREN BALIOA. Lupe Calvo 20 euros (4% IVA incluido).

SEGUNDO.-Proceder a la publicación del presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Intervenciones en relación al acuerdo:

EL SR ALCALDE: El tercer punto consiste también en un tema de Alcaldía, en la propuesta de aprobación de la modificación del acuerdo de establecimiento de los precios públicos de la venta de publicaciones municipales. Como recordaréis, en el Pleno realizado a finales de febrero aprobamos el acuerdo del establecimiento y ordenación de precios públicos por la venta de publicaciones municipales, y dado que el Ayuntamiento de Hondarribia ha realizado dos nuevas publicaciones, se debe modificar tal acuerdo en su anexo, es decir, en el anexo 3.1, ya que deseamos incluir los precios de otros dos libros. Los dos libros en cuestión son, por un lado, “Hondarribiko kaleak”, tanto en la versión en euskera como en la de castellano, y por otro lado el libro “Pertsona izatearen balioa”. Se os han presentado los informes, en los cuáles se reflejan las valoraciones tanto de Intervención como de Tesorería. En ellos se recogen los costes de los libros y los déficits a los que hará frente el Ayuntamiento, y la manera en la que justificaremos dichos déficits argumentando que se trata de libros de interés general; en base a ello se propone poner a la venta el libro “Hondarribiko kaleak” a 30 euros, tanto en su versión en euskera como en la de castellano, y el libro “Pertsona izatearen balioa” a 20 euros. Entonces, ¿precisa alguien de alguna aclaración? En consecuencia, ¿votos a favor de aprobar la propuesta de modificación del acuerdo de establecimiento y ordenación de precios públicos en su Anexo 3.1? Aprobado por unanimidad, y esperemos tener los dos libros cuanto antes a la venta.

NORTASUNA SENDOTZEKO BATZORDEA

4.-AMAIUR ETA HONDARRIBIA SENITARTZEKO ONARPEN PROPOSAMENA

Amaiur eta Hondarribia senitartzeari dagokion espedienteaz aztertu ondoren.

2024ko apirilaren 18ko Nortasuna Sendotzeko Batzordearen diktamena ikusi ondoren.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Aldeko botoak: 14, Abotsanitz (6), EAJ-PNV (6), eta EH Bildu (2).

Aurkako botoak: 0.
Abstentzioak: 2, PSE-EE-PSOE.

Horren ondorioz, **Udalbatzak**, aldeko legezko gehiengo osoz, hauex **ERABAKI DU**: Amaiur eta Hondarribia senitartzea onartzea.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

ALKATE JAUNA: Nortasuna Sendotzeko batzordetik laugarren puntuan Amaiur eta Hondarribia senitartzeko onarpen proposamena daukagu, eta horren inguruan Ortziri eman nahi nioke hitza.

ALONSO JAUNA: Arratsalde on, guztioi. Dakizuen bezala azkeneko hilabeteetan lanketan ibili gara, Hondarribia eta ...bereziki...Hondarribiak Nafar Erresuma izateari utzi ziola 500 urte betetzen diren honetan, ekitaldi berezi baten inguruan murgilduta gaude, eta nolabait apirileko hilabete honetan burutu ditugun ekitaldi, ekimen ezberdinei, nolabaiteko bukaera emateko edo, badaukagu hitzordu berezi bat larunbatean, eta hona ekartzen dugun proposamena da, bereziki, dakizuen bezala, Amaiur eta Hondarribia, Hondarribia eta Amaiur senidetzeko

COMISIÓN FORTALECIMIENTO DE LA IDENTIDAD

4.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL HERMANAMIENTO DE AMAIUR Y HONDARRIBIA.

Examinado el expediente relativo a la propuesta de aprobación del hermanamiento de Amaiur y Hondarribia.

Visto el dictamen de la Comisión de Fortalecimiento de la Identidad de 18 de abril de 2024.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Votos a favor: 14, Abotsanitz (6), EAJ-PNV (6), y EH Bildu (2).

Votos en contra: 0.
Abstenciones: 2, PSE-EE-PSOE.

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría absoluta legal favorable, **ACUERDA**: aprobar el hermanamiento de Amaiur y Hondarribia.

Intervenciones en relación al acuerdo:

EL SR ALCALDE: Desde la Comisión Fortalecimiento de la Identidad tenemos en el cuarto punto la propuesta de aprobación del hermanamiento de Amaiur y Hondarribia, y quisiera dar a Ortzi la palabra sobre este tema.

EL SR ALONSO: Buenas tardes a todos/as. Como sabéis, hemos estado trabajando durante los últimos meses en el tema del 500 aniversario del hito en el que Hondarribia dejó de formar parte del Reino de Navarra. Estamos inmersos en una labor especial en torno a una celebración de tal hecho, y como colofón a los distintos actos e iniciativas, tenemos una cita especial el sábado, y la propuesta que traemos es, como sabéis, en especial, la propuesta de hermanamiento de Amaiur y Hondarribia. Bien, sin profundizar en el tema, para contextualizar, quisiera mencionar diversas fechas

proposamena. Bai, pixkat, sakondu gabe, edo, nahiko nuke testuinguruan jartzeko data historiko batzuk aipatu; esan bezala 2024ko apirilean betetzen dira, edo beteko lirateke 500 urte, Nafarroako Erresuma izateari utzi geniola, data zehatz jakin batzuk hor dauzkagu jada testuan jasoak. Aipatzeagatik eta XVI. mendeko bloke honetan aipatzeagatik 1512. urteko urtea daukagu; urte horretan Gaztela eta Aragoiko tropak Nafarroako Erresuman sartu eta ordurako Nafarroako aliantza sinatua zegoen frantsesekin. Beste data esanguratsu bat izango genuke 1521. urtekoa, Nafar Erresumak birkonkista burutzen dute, eta ia hamarkada luzez okupaturiko lurak berreskuratzen dituzte; urte horretan bertan Noingo gudan porrot egingo dute, eta Nafar Erresumak Pirinioak gurutzatu eta Frantziar eremura pasatzera behartuta daude. Urte horretako urriaren 2an Amaiurko gotorleku nagusia eta urriaren 19an Erresumako portua, Hondarribia, berreskuratzen da.

1522. urtean Ludes izenez Hondarribiko Gobernadore izendatzen du Nafar Erresumak, urte berean Carlos V.ak beste erasoaldi bat abiatzen du, eta uztailaren 19an Nafarroako azken porrota iristen da Amaiurren, eta bitarte horretan setiaturik gelditzen da Hondarribia, eta 1523ko otsailan setioa altxatzea lortzen da, hornidura iritsi arte. Azkeneko data edo, esanguratsua daukagu, 1524. urtea iritsita, urte eta erdiko borroka krudelen artean, negoziaketarako bideari ekiten diote, eta apirilaren 29an indarrean sartzen da Hondarribiko barkamena. Nafarroako Erresumaren azken portua Gaztelaren eskuetan geratu zelarik.

Azken gaztelua, beraz, eta azken portua galtzen dira, eta Nafarroako Erresumaren gainbehera etortzen da. Esan nahi du, nolabaiteko...nolabaiteko ez... baizik eta ze lotura zuzena izan zuten gertakarietan Amaiur eta Hondarribiko pasarteek edo data horiek. Amaiur eta Hondarribiko porrotek etorkizun beltzera kondenatu zuten Erresuma, eta hortik, horrekin bat, ordurarte zuten garrantzi estrategikoa galtzen da. Kontestu hori aprobetxatu nahi dugu, data horiek...proposamen hau gaurko Udalbatzara ekartzeko. Aurretik Batzordean jada pasata dugu, eta testuaren oinarri horretan lanean jardun gara. Hau esanda, ikusten dugu Nafarroako Erresumaren pasarte historikoa, Amaiurrek eta Hondarribiak

históricas; tal y como he señalado, en abril del 2024 se cumplen, o se cumplirían, 500 años desde que dejamos de formar parte del Reino de Navarra; tenemos una serie de fechas concretas recogidas en el texto. Entre ellas cabe mencionar, dentro del bloque del siglo XVI, el año 1512: Ese año las tropas de Castilla y Aragón entraron en el Reino de Navarra, el cual tenía firmada la alianza de Navarra con los franceses. Otra fecha significativa sería el año 1521, cuando el Reino de Navarra realiza la reconquista, y recupera las tierras ocupadas durante un largo decenio; ese mismo año fracasaron en la batalla de Noain, y el Reino de Navarra cruzó los Pirineos y tuvieron que pasar al tierras francesas. El 2 de octubre de ese mismo año se recuperó el castillo de Amaiur y el 19 de octubre el puerto del Reino, Hondarribia.

En el 1522 el Reino de Navarra nombró Gobernador de Hondarribia a Ludes, ese mismo año Carlos V. emprendió un nuevo ataque, y el 19 de julio llega el último fracaso de Navarra en Amaiur, y entre tanto Hondarribia queda sitiada; en febrero de 1523 se logra levantar el sitio, hasta la llegada del abastecimiento. La última fecha significativa es el año 1524; entre crueles luchas que se prolongaron durante año y medio, comenzaron las negociaciones, y el 29 de abril entra en vigor el perdón de Hondarribia, quedando el último puerto del Reino de Navarra en manos de Castilla.

Por lo tanto se pierden el último castillo y el último puerto, y llega la decadencia del Reino de Navarra; lo cual evidencia la clara relación entre los sucesos de Amaiur y Hondarribia o de esas fechas. Los fracasos de Amaiur y de Hondarribia condenaron a un oscuro futuro al Reino, y con ello, perdió la importancia estratégica que tenía hasta entonces. Queremos aprovechar ese contexto, esas fechas...para traer esta propuesta hoy al Pleno. Hemos llevado anteriormente el tema a la Comisión, y hemos trabajado basándonos en el texto. Teniendo en cuenta lo explicado, vemos que el pasaje histórico del Reino de Navarra lo escriben Amaiur y Hondarribia, y por nuestra parte, partiendo de iniciativa propia quisiéramos resaltar

idazten dutela, gure aldetik gure ekimenez Hondarribiko udalaren izenean ekarri dugun ekimen hau nahiko genuke gure historia azpimarratzea, bere horretan pasatzea baino, hori goraiatu nahi dugu. Eta horregatik ere proposamen hau. Dakizuen bezala Udalaren izenean “Azken Gaztelua, Azken Portua” ekimena burutu dugu, aprobetxatu nahiko nuke biharko hitzaldirako gonbitea egiteko, zuei guztioi eta herritar guztioi, Aitor Pescadorren hitzaldia izango dugu, eta guzti honekin batera senidetzearen proposamena. Eta inizatiba hau hartzen duguna, ekimen hau hartzen duguna, hartzen dugu, eta galdetuko du batek baino gehiagok...agian...edo agian ez...zergatik senidetu Hondarribia eta Amaiur. Batetik ikusten dugu lotura historikoa nabarmena dela, badaukagula, gero bestetik, modu naturalean, ere bai, eta natura ikuspegitik badaukagu lotura hidrológikoa, Bidasoa ibaiak batzen gaitu, eta uste baino barrurago, lehenago hasten da Bidasoa ibaia, Errekattipin, Amaiurren, eta Txingudiko badian itsasoratu; lotura kulturala ere, dakigun bezala, badugu, hizkuntza, euskara, nola ez, eta garai batean ere bai pilota jokamoldean laxoa den bezala eta jaso den bezala 1869. urteko laminan, Gustavo Colinen laminak. Honekin batera nahi duguna da Hondarribia, Amaiur eta Baztango bailara...bertako harremanak sendotu. Oinarriak baditugu, eta nahiz eta elkarren alboan bizi urruti baino gertuago bizi nahi dugu, urrutira begiratu nahi dugu, baina bertakoa ezagutuz. Egia da, eta gure artean ere hitz egin dugu Batzordean, hau abiapuntu bat da, hau ez da helmuga bat, hasiera bat da, egia esan, eta senidetze honekin erronka bat badugu, ardura bat daukagu, eta lekukoa hartzen dugu, eta nolabait ere lekuko hori mugitu edo pasa nahi dugu gure artean eta generazio berriei. Hondarribiko herria Amaiur eta Baztango bailarekin belaunaldi ezberdinen arteko harremanak sendotzeko, eta elkar ezagutzeko.

Amaitzeko, egia esaten badizuet, ekimen honetan, hartu dugun inizatiba honetan eta guztiok partekatu dugun ekimen honetan bidelagun izan ditugun alderdi politikoei eskerrak eman nahi dizkizuet, aprobetxatzen dut ere bai larunbatean izango dugun senidetze ekitaldi horretan denak ondo pasatzea eta dena ondo ateratzea, eta guztiok elkarrekin jarrai dezagun lanean eta besterik gabe, mila esker.

nuestra historia por medio de esta iniciativa, en nombre del Ayuntamiento de Hondarribia, sin dejarlo pasar sin más. Queremos ensalzarlo. Y de ahí esta propuesta. Como sabéis hemos realizado la iniciativa “El último castillo, el último puerto” en nombre del Ayuntamiento, y quisiéramos aprovechar para invitaros tanto a los presentes como a toda la ciudadanía, a la conferencia de mañana, de Aitor Pescador, y además para realizar la propuesta de hermanamiento. Y tomamos esta iniciativa, y quizás más de uno/a se preguntará cuál es la razón de ello, por qué realizar el hermanamiento entre Amaiur y Hondarribia. La razón es que, por un lado, la relación histórica es evidente, por otro lado, de manera natural, el río Bidasoa nos une, y desde más adentro de lo que pensamos, el Bidasoa nace más al interior de lo que pensamos, en Errekattipi, en Amaiur, y desemboca en la bahía de Txingudi. También está la relación cultural: como bien sabemos, tenemos en común la lengua, el euskera, cómo no, y el juego de pelota laxoa, tal y como queda recogido en la lámina de 1869 de Gustavo Colín. Con todo esto lo que queremos es afianzar las relaciones entre Hondarribia, Amaiur, y el valle del Baztan. Tenemos las bases para ello, y así, queremos vivir más cerca que lejos, ya que estamos situados en proximidad; queremos mirar a la lejanía, pero partiendo del conocimiento de lo próximo. Es verdad, y así lo hemos comentado entre nosotros/as en la Comisión, que éste es un punto de partida, que no es una meta; es un comienzo, y con este hermanamiento adquirimos una responsabilidad, y tomamos el testigo, y queremos pasarnos dicho testigo entre nosotros/as y a las nuevas generaciones. Un hermanamiento entre Hondarribia y Amaiur y el Valle del Baztan, para afianzar las relaciones entre las distintas generaciones, para el conocimiento mutuo.

Para finalizar, a decir verdad, os quiero agradecer a todos los partidos políticos que habéis tomado parte en esta iniciativa; de paso, aprovecho la ocasión para desear que en este acto de hermanamiento que vamos a tener el sábado, todos/as lo pasemos bien y todo salga bien, y todos/as podamos seguir trabajando juntos/as. Y sin más, gracias.

ALKATE JAUNA: Eskerrik asko, Ortzi. Zabalduko dugu txanda bat, EAJren...

CARRION JAUNA: Ahal bada, alkate jauna, egingo dugu aipamena, aipamen bat eta galdera bat. Batez ere, mila esker Ortzi, egin dituzun azalpenengatik, eta gure aldetik batez ere nahiko genuke...aipatu duzun moduan, batez ere interesgarria iruditzen zaigu bai Baztan bailara, bai Bortziri, eta Txingudi badia, dena Bidasoaldea deitzen zaion horretara elkartzea, bai historikoki dagoela, bai naturalki dela, eta kulturalki, nire ustez gauza asko dauzkagu gureak direnak, eta beraiek gureak direnak ere bai, hizkuntzaz aparte, eta bai kirolean, bai koroetan, gero larunbatean entzungo ditugunak, eta ez izatea, aipatu duzun moduan, senidetze bat eta urte batean lagatzea. Honi jarraipena eman behar zaio, eta nahiko genuke hemen gauden alderdi guztiek gaudenok gaur egun Udaletxe honetan lekuko hori hartzea eta jarraitzea horrekin. Honekin nahi dut esan bere garaian egin genuen bezala Peñiscolarekin eta 25. urtean egin genuen kultural eta kirol aldaketa bat eta hor gelditu zen, hori ere ez horrela gelditzea, eta batez ere jarraipena ematea. Ez dut esaten urtez urte izan behar duenik, baina bai dinamika bat jartzea. Interesgarria da, ahal dugu bai kirolean eta bai kulturean ahal ditugu gauza asko egin, eta politika alde batera utzita. Horregatik, gure aldetik aldeko botoa jasoko du senitartzeko aukera honek, eta galdera da larunbateko ekitaldiengatik. Anderrek aipatuko ditu. Eskerrik asko.

RIBES JAUNA: Esan bezala, hori, niri oso proiektu polita iruditzen zait, niri, taldeari, oso interesgarria da Ortzi aipatu duen bezala, hau hasiera bat da, eta horri lotu behar zaio. Gure galdera da, azkenean, ea zein izango den larunbateko protokoloa. Orain arte ez dugu...gaur osteguna izanda, larunbateko gonbidapenik zuzenik ez dugu jaso, eta prentsa oharretan ez dugu ikusi korporazioaren presentziari buruzko ezer, bakarrik alkatearena. Orduan, egiteko moduak hobetzeko intentzioarekin eta formak ez direlako tontakeriak uste dugu egokiena, gure ustez, horrelako kasuetan, jaietan egiten den moduan, mezu bat zinegotzietan zuzenean bidaltzea izango zela protokoloa argituz. Jaietan badakigu egunero non, noiz eta nola egon behar garen; era berean, gainera jaiak, kontuan hartuta urtero direla eta hori gogoratzen dela, arrazoi handiagoa horrelako gauzak...noiz behinka

EL SR ALCALDE: Gracias, Ortzi. Abriremos una tanda de intervenciones, EAJ...

EL SR CARRION: A ser posible, Sr. Alcalde, realizaremos una mención y una pregunta. Sobre todo, gracias, Ortzi, por las explicaciones dadas, y por nuestra parte quisiéramos mencionar que, tal y como has dicho, nos parece interesante unir el valle del Baztan, Bortziri y la Bahía de Txingudi en la llamada Bidasoaldea, tanto en el ámbito histórico, como en el natural, como en el cultural; a mi entender son muchos aspectos los que tenemos en común, además de la lengua y el deporte, el ámbito de los coros, los cuáles escucharemos el sábado. Y esperemos que no consista en un hermanamiento que se limite a un año. Hay que darle continuidad, y quisiéramos que todos los partidos políticos presentes tomáramos hoy el testigo en este Ayuntamiento y le diéramos continuidad. Con ello quiero decir, que tal y como en su día hicimos con Peñíscola, y en el año 25 realizamos un intercambio cultural y deportivo y terminó en eso. Quisiéramos que no finalizara en eso, y que se le diera continuidad. Con ello no digo que deba realizarse anualmente, pero sí que se establezca una dinámica. Es interesante, podemos incidir en muchos aspectos tanto en el deporte como en la cultura, dejando a un lado la política. Por ello, esta propuesta de hermanamiento tendrá nuestro voto a favor. Y la pregunta que queríamos hacer es sobre los actos del sábado. Ander dará cuenta de ello. Gracias.

EL SR RIBES: Como se ha dicho, tanto a mí como a nuestro grupo nos parece un proyecto muy bonito, muy interesante, tal y como ha señalado Ortzi; se trata de un comienzo, al cual debe darse continuidad. Nuestra pregunta es cuál será finalmente el protocolo del sábado. Hasta el momento, siendo hoy jueves, no hemos recibido ninguna invitación directa, y no hemos leído en prensa nada acerca de la presencia de la corporación, únicamente se menciona al alcalde. Entonces, y con la intención de mejorar el procedimiento, y partiendo de que las formas no son una tontería, pensamos que lo más adecuado en estos casos es proceder como se actúa en las fiestas patronales, con el envío de un mensaje directo a los/as concejales/as aclarando el protocolo. En fiestas todos/as sabemos dónde y cómo debemos ubicarnos; además, teniendo en

egiten diren horrelako gauzetan.

Gainera beste erakundeei luzatu zaie gonbidapena, eta guk, bertakoak, ez dugu jaso, zuzena ez. Badakigu presaka prestatu dela dena, argi dago, ikusita gaur onartu behar dugula larunbaterako prest dagoen zerbait, baina hori ez da aitzakia, eta gauzak txukun egiteko protokoloa ere zaindu behar dugu. Hori da gauza, eta orduan larunbatean gure papera zein izango den jakin nahiko genuke. Eskerrik asko.

ALKATE JAUNA: Eskerrik asko. Beste hitz hartzerik? Alderdi Sozialistaren izenean? Noemí?

ODRIOZOLA ANDREA: Bai. Gu abstenitu egingo gara senidetzeari buruzko mozio honen proposamenari dagokionez. Datu historikoak berreskuratzerakoan aholkularitza eskatu dugu, izan ere ez losuk eta ez nik ez dugu historiaren alorrean nahiko jakituria gertaerei buruz aritzeko; orduan gure udal taldearen barruan historiagile bat dago,...ez gure udal taldearen barruan, baizik eta gure taldearen barruan...historiagile bat dago, eta aholkua eskatu diogu.

Orduan, testuinguru historikoari buruzko datuak jaso dizkigu, eta ez dizkizuet orain irakurriko, baina tira, sare sozialetan argitaratuko ditugu interesa duen orok irakur ditzan. Mozioari dagokionez, iruditzen zaigu egiten duen irakurketa historiaren ikuspegi murriz samarra dela, 1524. urtea ematen baita Nafarroaren azken portua galdu zeneko urtetzat, berez 1200. urtean galdu zelarik, eta gainera gertaerak zian ziren testuingurua alde batera uzten batia erabat. Egia da Hondarribia Nafarroako portu gisa berreskuratzeke nahia behin eta berriz izan dela denboran zehar, baita 1936an ere, matxinatuek Gipuzkoa okupatu zutenean ere, joera horretako zenbait proposamen egon baitziren, aurrera egin ez zuten arren.

Hondarribiko Alderdi Sozialistak ez du inolako eragozpenik Hondarribia eta Amaikur senidetzeko, baina kontuan izanik zenbait akats historiko eta zehaztasuni-ez gertatzen direla proposamenean,

cuenta que las fiestas son un acontecimiento anual y que el procedimiento se explica todos los años, se debería poner más atención en estos otros actos que son eventuales.

